Belaunaldi berrien aukera
La era del euskera



# ETA ESKOLATIK KANPO, ZER?

Zuen seme-alaba, koskortzen doan neurrian, fase berri batean sartzen ari da. Eskolatik kanpoko jarduerak ugaritzeko zaizkio, lagunarteko harremanak indartzen joanen zaizkio eta kultur kontsumoa areagotzen. Hau da, aisialdiak gero eta toki gehiago hartuko du bere bizitzan.



Eta zinez da beharrezkoa gurasoek aisialdiari duen garrantzia ematea. Izan ere, denbora horretan haurrak ongi pasatzeaz gainera, bere sozializazio eremuak zabalduko ditu eta bere nortasuna eraikitzen lagunduko dioten bizipen berriak bereganatuko ditu. Aisialdiak bere bizitza aberastuko du, baita euskara ikasteko eta erabiltzeko prozesua ere. Izan ere, hizkuntza ez da eskolan bakarrik ikasten, bizitzan ere ikasten da.

Eskolak funtsezkoa izaten jarraituko du, baina gogoratu dezagun umeak bertan urteko esna orduen % 15 baizik ez duela ematen. Hortaz, jar dezagun arreta beste % 85ean.

Gurasoak giltzarri zarete eskolaz kanpoko denbora tarte zabal horretan haurrak eginen duen ibilbidean. Hortaz, erabakiak hartzeko unean hizkuntzaren faktorea kontuan har dezazuen, dekalogo hau eskaintzen dizuegu.



## ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN...





1. **Gustuko tokian aldaparik ez!**
Kirola, musika, dantza, udalekuak, ludotekak, bertso eskola… umearen gustukoak dira. Horietan euskaraz aritzeko aukera baldin badute, gutxienez bi helburu beteko dira: bat, hizkuntzarekin dituzten bizipenak, harremanak eta esperientziak areagotzea; bi, bestelako erregistroak lantzea (musika edo kirol arloko hiztegia, hizkera kolokiala...).

2. **Kantitateak axola du!**
Hizkuntzak ongi ikasteko eta erraztasuna lortzeko maiz erabili behar dira. Zenbat eta jarduera, harreman edo esperientzia gehiago euskaraz, orduan eta erabiltzeko aukera gehiago izanen dute.

3. **Izan proaktibo!**
Umeen gustuko jardueraren bat zuen inguruan euskaraz eskaintzen ez bada, herriko eragileengana (guraso elkartea, eskola, udala, euskara zerbitzua…) jo dezakezue, jarduera hori euskaraz antola dadin saiakera egiteko.

## PARKEAN, PLAZAN...





4. **Begiak eta belarriak erne!**
Parkea, plaza, atariak… haurra sozializatzeko ohiko guneak dira, harreman askeetarako lekuak. Bertan ohiturak, jolasak, kantak… partekatzen dituzte, eta hizkuntza ere garatzen dute. Hortaz, espazio hauetan ere euskarak presentzia izatea garrantzitsua da.

5. **Izan *guraso berritsu!***
Gerta daiteke haurrek beren arteko harremanetan eta jolasean ari direlarik erdaretara jotzea. Horrelakoetan “Egizu euskaraz!” agintzea baino eraginkorragoa izaten da haien elkarrizketan euskaraz sartzea, eta, noski, helduek ere euskara ahalik eta gehien erabiltzea. *Guraso berritsu*aren rola jokatzea, alegia.

6. **Euskara jolaserako**
Euskaraz dakizuen gurasoek paper aktiboa joka dezakezue gune horietan, jolaserako euskarazko kantuak, formulak, igarkizunak, aho-korapiloak… ikasiz eta haiekin erabiliz. Erronka polita zuentzat ere, ezta? *Ikusi-makusi*, *Dona-dona katona...*

## ETXEAN...







7. **Hemen ere, *guraso berritsu!***
Beharrezkoa da etxean komunikazio aberatsa izatea, solasaldi ugari sortzea eta haurrari mintzatzeko aukera ematea. Horrez gain, haurrarentzako eredu zaretenez, berarekin ez ezik etxeko helduen artean ere euskaraz aritzen bazarete, hark ere ohitura hori barneratu ahal izanen du. Etxean euskaraz ez dakiten helduak baldin badaude, komeni da egoeraz hitz egitea eta denon artean hizkuntzen erabilera adostea, euskarari ahalik eta tarte handiena emateko helburuarekin.

8. **Paisaia linguistikoa zaindu**
Hizkuntza belarrietatik nahiz begietatik sartzen zaigu. Telebista eta irratia, jartzen dugun musika, horman zintzilikatzen dugun egutegia, erosketaren zerrenda, hozkailuan itsasten ditugun ohartxoak… euskaraz izatea aukera polita da. Umea idazten hasi dela aprobetxatuz, hari eskatzen ahal diozue erosketaren zerrenda idatz dezan, adibidez.

9. **Egin tokia euskarazko kulturari**
Haurra gero eta gehiago hasiko da edozein pantailatan bere aukeraketak egiten, bere kabuz irakurtzen edota nahi duen musika entzuten. Hizkuntzaren faktorea zaintzea dagokizue, printzipio berari jarraituz: euskarari ahalik eta toki gehien emanez. Berdin euskarazko kultur ekitaldiekin: gaur egun zuen inguruan euskarazko ekitaldi ugari topatuko duzue; kontsultatu kultur agendak!

## ETA BIZITZAN!



10. **Izan hizkuntza ekologistak!**
Munduan 6.000 inguru hizkuntza hitz egiten dira. Hizkuntza eta kultura aniztasun handia da hori, eta guzion ardura da aberastasun hori zaintzea. Seme-alabei euskaraz hazteko aukera emanez aniztasun hori babesten eta bultzatzen ari gara.

era
Belaunaldi berrien aukera
La era del euskera

**Filmak** | **App-ak** | **Marrazki bizidunak** | **Jostailuak**
**Musika** | **Betiko jolasak** | **Audio-ipuinak**
**Bideo-ipuinak** | **Gomendatutako liburuak**

EUSKARAZ

era.eus

@eranafarroa

Aezkoako Batzarre Nagusia; Agoizko Udala; Antsoaingo Udala; Aranguren Ibarreko Udala; Atarrabiako Udala; Auritz, Erroibar, Artzibar eta Luzaideko Udalak; Barañaingo Udala; Baztango Udala; Berriobeitiko Udala; Berriozarko Udala; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea; Burlatako Udala; Eguesibarko Udala; Estella-Lizarrako Udala; Esteribarko Udala; Garesko Udala; Irantzuko Mankomunitatea; Izarbeibarko Mankomunitatea; Malerrekako Mankomunitatea; Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea; Orkoien, Oltza Zendea eta Etxauriko Udala; Sakanako Mankomunitatea; Tafallako Udala; Uharteko Udala; Zaraitzu eta Erronkariko Batzar Nagusiak; Zizur Nagusiko Udala.
* Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako proiektua.

Lege gordailua: NA 1023-2021



era
Belaunaldi berrien aukera
La era del euskera

# ¿Y AL SALIR DE CLASE?

A medida que las niñas y niños crecen, van entrando en una nueva fase donde el ocio aparece como herramienta de desarrollo infantil que les ofrece grandes beneficios, además de ampliar su círculo de amistades. Por eso, cada vez ocupará un lugar más importante en sus vidas.



De hecho, en esta etapa, además de pasarlo bien, aumentan sus espacios de socialización y las vivencias que ayudan a construir su identidad: escogen aficiones, ponen en práctica sus ideas, desarrollan su creatividad, juegan en grupo... El ocio enriquece su vida, y al mismo tiempo es un buen momento para completar su proceso de aprendizaje de euskera y brindarle más opciones de uso. Ya que el euskera no sólo se aprende en la escuela; también se aprende en la vida.

Obviamente, la escuela sigue siendo fundamental, pero recordemos que solo abarca el 15% del tiempo anual, descontadas las horas de sueño. Por lo tanto, pongamos el foco en el 85% restante, que da para mucho.

Vuestro papel como madres y padres es clave a la hora de ayudarles a enfocar ese amplio período de tiempo. Por eso, os ofrecemos el siguiente decálogo que pone de relieve la aportación lingüística que podéis hacer, sepáis o no euskera.



## EN LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES...

1. **¡Donde estén a gusto, buen rato!**
   El deporte, la música, la danza, los campamentos, las ludotecas… les encantan. Al realizarlas en euskera se cumplen al menos dos objetivos: asocian el euskera a espacios de diversión y, al mismo tiempo, aprenden nuevos registros (vocabulario específico de la actividad, lenguaje coloquial, etc.).

2. **La cantidad importa**
   Los idiomas deben utilizarse con frecuencia para aprenderlos bien y hablarlos con facilidad. Cuantas más actividades realicen en euskera, más posibilidades de uso tendrán.

3. **También es cuestión de actitud**
   Si en la oferta de actividades falta alguna en euskera, podéis dirigiros a los distintos agentes del municipio (ampas, escuela, ayuntamiento, servicio de euskera…), con el fin de intentar que se programe.



## EN EL PARQUE, EN LA PLAZA...

4. **Prestemos atención**
   El parque, la plaza, la calle… son espacios importantes para su socialización, lugares para relacionarse de manera más libre, en los cuales comparten costumbres, juegos o canciones, y también desarrollan el idioma. Por lo cual es importante que el euskera esté presente.

5. **Sois agentes activos**
   A veces veréis que las niñas y niños al relacionarse no utilizan el euskera. En esos momentos es muy importante vuestra actitud, animándoles a que lo utilicen pero sin obligarles a hacerlo. Algo que funciona muy bien es que las personas adultas que saben euskera lo utilicen e intervengan discretamente en sus conversaciones, redirigiéndoles al euskera.

6. **¡A jugar con el idioma!**
   En euskera, como en todos los idiomas, abundan las canciones, fórmulas, adivinanzas, trabalenguas... para jugar. Suelen ser repetitivas, pegadizas y muchas de ellas fáciles de memorizar. Por eso, son una buena herramienta para las madres y padres que os juntáis en el parque, para quienes saben euskera y, ¿por qué no?, también para quienes no. *Ikusi-makusi, Dona-dona katona…*





## EN CASA...

7. **Lo principal: motivarles**
   Sepáis o no euskera, motivar a las niñas y niños es lo fundamental, lo más importante. ¿Cómo? Creando las condiciones para que sientan vuestro apoyo; mostrando interés y acompañándoles en su proceso de aprendizaje, valorando su esfuerzo y felicitándoles; animándoles a que lo utilicen y ofreciéndoles posibilidades para que puedan hacerlo; promoviendo su participación en actos y actividades en euskera…

8. **Un espacio para el euskera**
   Vuestras hijas e hijos traerán el euskera (escrito y hablado) a casa, una gran oportunidad para aprovechar en familia. Sea cual sea vuestro conocimiento del idioma, conviene reflexionar sobre la presencia que queréis ofrecerle en el hogar: podéis hacer que esté presente, por ejemplo, en el calendario de pared; o podéis acordar hablar en euskera en ciertas situaciones: saludos, frases sencillas (*goazen ohera, jantzi berokia*) o al realizar algunas rutinas (elaborar la lista de la compra, poner música en el coche, etc.).

9. **Cultura en euskera**
   Conforme van adquiriendo autonomía, las niñas y niños comienzan a pasar cada vez más tiempo frente a una pantalla, a leer y jugar por su cuenta, a escuchar la música que les apetece... También ahí conviene cuidar el aspecto lingüístico, siguiendo el mismo principio: ofrecer al euskera todo el tiempo y el espacio posible. Lo mismo con las actividades culturales en euskera. Hoy en día se programan gran cantidad de ellas. ¡No olvidéis consultar las agendas culturales de vuestro entorno!







## ¡Y EN LA VIDA!

10. **¡Cuidemos la diversidad lingüística!**
    En el mundo se hablan unos 6.000 idiomas. Esa diversidad lingüística y cultural es una gran riqueza que debemos cuidar. Ofreciendo a nuestras hijas e hijos la oportunidad de que crezcan en euskera estamos protegiendo y fomentando esa diversidad.



era
Belaunaldi berrien aukera
La era del euskera

**Películas | App-s | Dibujos animados | Juguetes**
**Música | Juegos tradicionales | Audio-cuentos**
**Video-cuentos | Libros recomendados**
EN EUSKERA

**era.eus**

@eranafarroa

Junta General del Valle de Aezkoa; Ayuntamiento de Aoiz; Ayuntamiento de Ansoáin; Ayuntamiento del Valle de Aranguren; Ayuntamiento de Villava; Ayuntamientos de Burguete, Valle de Erro, Valle de Arce y Valcarlos; Ayuntamiento de Barañain; Ayuntamiento de Baztan; Ayuntamiento de Berrioplano; Ayuntamiento de Berriozar; Mancomunidad de Euskera de Bortziriak; Ayuntamiento de Burlada; Ayuntamiento de Estella-Lizarra; Ayuntamiento de Esteribar; Ayuntamiento de Puente la Reina; Ayuntamiento del Valle de Egüés; Mancomunidad de Iranzu; Mancomunidad de Valdizarbe; Mancomunidad de Malerreka; Mancomunidad de Euskera del Norte de Navarra; Ayuntamientos de Orkoien, Cendea de Olza y Etxauri; Mancomunidad de Sakana; Ayuntamiento de Tafalla; Ayuntamiento de Huarte; Juntas Generales de los Valles de Salazar y Roncal; Ayuntamiento de Zizur Mayor.
* Proyecto subvencionado por el Gobierno de Navarra.

Depósito legal: NA 1023-2021